

## **Haraneko musika entsegu lokalen erabilera arautzen duen udal ordenantza.**

### **1. artikulua**

Arautegiaren helburua Haraneko (Kalezar auzoa 44) musika entsegu gelen erabilera eta funtzionamendu arauak ezartzea da. Batik bat, erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak zein diren zehazteko eta instalazioak erabiltzeko baldintzak definitzeko

### **2. artikulua**

Haranen 2 musika entsegu gela intsonorizatu daude. Usurbilgo Udalak urtero, irailean, gela bakoitzean 8 talderi baimenduko dio erabilera. Guztira, Haraneko entsegu gelak erabiltzeko baimena 16 taldek izango dute.

### **3. artikulua**

Urtero, irailaren bigarren hamabostaldian, musika gelen erabilera baimena eskuratzeko deialdia egingo du Usurbilgo Udalak. Eskaerak udal erregistroan aurkeztuko dira. Eskaeren azterketa eta entseguak egiteko lokalen erabilera baimenen proposamena Kultura Sailak egingo du.

### **4. artikulua**

16 taldek baino gehiagok egiten badute entsegu gelak erabiltzeko eskaera, irizpide hauek erabiliko dira eskaerak aukeraketa egiteko:

- Taldeak modu kolektiboan aztertuko dira eta taldearen ezaugarriak oro har hartuz, puntuak portzentajearen ondorengo ezaugarrien baitan banatuko dira:
  - Errolda: % 100 usurbildarra den taldeari 4 puntu eta taldeko bakarra usurbildarra denean 1 puntu. Usurbildarrik ez den kasuan 0 puntu. Besteei linealki proportzional usurbildarren portzentaiaren baitan.
  - Adina: taldearen adinaren batez bestekoa hartuko da kontuan eta adin tarteka banatuko dira: 15-18 urte arte 3 puntu; 18 urte gaindituta 24 urte arte 2 puntu; 24 urte gaindituta 28 arte 1 puntu; 28 urte gaindituak dituztenei 0 puntu.
  - Erabiltzaileen antzinasuna lokalarekiko: talde edo kolektibo berriek 2 puntu; 2 urte gaindituak 5 urte arte 1,5 puntu; 5 urte gaindituak 8 urte arte 1 puntu; 8 urte gaindituak dituen talde edo kolektibori 0,5 puntu.
  - %100 emakumeek osatutako taldeak puntu bat. Emakumerik ez den talde edo kolektiboei 0 puntu. Besteei, linealki proportzional emakumeen portzentajearen baitan.

16 taldek baino gehiagok egiten badute eskaera, itxaron zerrenda osatuko da baimena lortzen ez duten taldeekin.

## **5. artikulua**

Udalak ez ditu bere gain hartuko erabiltzaileek Haraneko musika entsegu geletan antolatutako jarduerak edota emandako iritziak.

## **6. artikulua**

Behar bezala zaindu eta erabiliko dira jarduerak burutzeko erabiltzaileen esku jarritako gela eta materialak. Taldeena izango da behar bezala erabili ez den materiala konpondu, birjarri edo, hala behar denean, ordaintzearen ardura. Erabiltzaileen erantzukizuna izango da gertatzen den ondorio kaltegarri oro.

## **7. artikulua**

Baimendutako taldeek espazioak erabiltzean elkarbizitza eta elkarrekiko begirunearen oinarritzko printzipioak beteko dituzte, erabiltzaile batek egiten duenak beste batek egindakoa kaltetu gabe.

## **8. artikulua**

Erabiltzaileek Kultura Saileko arduradunei jakinarazi beharko diete eraikinean, geletan edo jardueraren funtzionamenduan edozein arazo edo irregulartasun sumatzen badute.

## **9. artikulua**

Musika entsegu gelak ez zaizkio, inola ere, talde edo kolektibo bati eskusibotasunez utziko.

## **10. artikulua**

Eraikinean debekatuta dago dirua irabazteko asmoa duten jarduerak egitea. Era berean, ezingo da jardueretan parte hartzeko dirurik eskatu.

## **11. artikulua**

Taldeek eraikineko guneak adostutako ordutegiaren barruan erabili beharko dituzte. Orduz kanpo erabiltzeko edo jarduera bereziak antolatzeko, hamabost egun lehenago eskaria egin beharko da eta Kultura Saileko zinegotziaren baimena izatea beharrezkoa izango da.

## 12. artikulua

Haraneko musika entsegu gelak erabiltzen dituzten taldeei antolatzen dituzten jarduerak baimentzeko prezio publikoak ordaintzea eska daiteke, hala dagokionean.

## 13. artikulua

Eraikinaren erabiltzaileek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Arautegi honek xedatutako guztia betetzea, funtzionamendu egokia eta gainerako erabiltzaileekin elkarbizitza bermatzeko.
- Udalaren helburuekin bat datozen jarduerak soilik burutzea.
- Indarrean diren Euskararen Erabilera Normaltzeko Udal Ordenantza eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Planak jasotakoak bete. Hizkuntz paisaian euskara bermatu, behar izanez gero piktogramekin lagunduta, eta ulermen-arazoek kezkarik bada, euskara beste hizkuntzen aldean lehenetsita (letra-mota, tamaina, kokapena...).
- Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili behar dute irudi eta hizkera mota guztietan, zuzenean eta beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.
- Zerbitzuak, ekipamendua, altzariak eta erabiltzaileari utzitako gainerako elementuak zaintzea eta behar bezala erabiltzea.
- Instalazioetan errespetuz jokatzeko eta erabiltzaile guztien eskubideak errespetatzea.
- Instalazioak txukun eta garbi mantentzea eta horretarako garbiketa txandak antolatzea. Erabiltzaileak derrigorrez arduratuko dira sor litezkeen hondakinak gaika sailkatu eta dagokion edukiontzian jasotzeaz.
- Adostutako ordutegiak errespetatzea. Hau da, entseguak goizeko 08:00etatik gaueko 00:00etarako tartean egin beharko dira. Musikariek ordutegi horretatik kanpo sartu edo ateratzeko malgutasuna izan dezakete, baina soilik, zama lanak edo antzekoak egiteko.
- Adostu bezala, herriari ordaina ematea trukean. Aretoak erabiltzen dituzten musika taldeek euren gain hartuko dute, hain zuzen, bertsio gauaren antolaketa, doan. Horretarako, martxoan ardurak banatuko dira, eta bertsio gauko taldeek entseguak egin ahal izateko erraztasunak emango dira.
- Instalazioetan erretzeko debekua errespetatzea.

- Kontsumo energetiko arduratsua egitea.
- Haraneko futbol zelaiko jarduna ahalik eta gutxien oztopatzea. Izan ere, musika lokalek futbol zelaiaren instalazio orokorretatik dute sarrera eta materiala hartu edota uzteko ibilgailua barrura sartu beharra gertatuz gero, futbol zelaiko erabiltzaileei eta ikusleei arazorik ez sortzea bermatu beharko da.
- Instalazioetako ahots ekipoak bertatik ateratzeko debekua errespetatzea.
- Erabiltzaile izateari uko egiten dion talde edo musikariak Usurbilgo Udalari jakinarazi beharko dio, erabilera-baja tramitatu eta itxaron zerrendan den taldea baimendu ahal izateko.

#### **14. artikulua**

Erabiltzaileen eskubideak honakoak dira:

Instalazioak dauzkan gelak erabiltzea, zehaztutako ordutegien eta mugen arabera.

#### **15. artikulua**

Udalaren betebeharrak ondorengoak dira:

- Lokalaren segurtasun neurriak bermatzea suteen aurkako ekipamendua eta alarmak mantenduta.
- Lokalaren argindar kontsumoen gastuak bere gain hartzea.
- Lokalaren erabilera eraginkorra gauzatzeko egin behar diren mantentze-lanak gauzatzea:
  - Instalazio elektrikoaren aldiroko azterketa teknikoak egin.
  - Lokalak dituen hezetasun arazoan jarraipena egin.
- Lokalaren segurua ordaintzea; Udalak lokalaren aseguruan udal jabetza duten ondasunak soilik barneratuko ditu. Erabiltzaileen jabetzakoak diren ekipo eta ondasunak ez ditu Udalak bere aseguruan barneratuko.
- Urtero, irailaren bigarren hamabostaldian, izen-emate deialdia zabalduko du.

## **16.artikulua**

Entsegu lokalen erabileraren funtzionamendu egokia bermatzeko, Musika Lokalen Erabilera Jarraipen Batzordea eratuko da. Batzordea musika talde bakoitzaren ordezkariak osatuko dute.

Batzordearen funtzioa lokalen erabilera aztertu eta dagozkion neurri zuzentzaileak hartzea izango da.

Funtzionamendu jarraipen bileretan parte hartzea derrigorrezkoa izango da.

- Iraila, abendua, martxoa eta ekainean egingo dira, hileko lehen igandean, arratsaldeko 18:00etan.
- Akta jasoko da bertan hitz egindako gaiekin, bertaratutakoen izenekin etab.
- Urtean behin, Musika Lokalen Funtzionamendu Jarraipen Batzordea udal ordezkariak bilduko da, lokaleko erabiltzaileen eta Udalaren arteko komunikazio kanala eguneratuta mantentzeko. Bileran Funtzionamendu Jarraipen Batzordeak lokalen erabileraren urteko memoria aurkezteaz gain, erabileran izan diren ahulguneak aipatu beharko ditu neurri zuzentzaileak adosteko.

## **17.artikulua**

Usurbilgo Udalak talde bakoitzari instalazioen bi giltza sorta kopia utziko dizkio. Talde bakoitzak 60 €-ko bermea aurkeztu beharko du gerora giltzak itzuliko dituztela bermatzeko. Taldeak giltzak itzultzen dituenean jasoko du berme jarritako dirua.

## **18. artikulua**

Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituz lokalen erabilerarako egiten diren iragarkiak euskaraz jarriko dira.

## **19. Artikulua**

Lokalen erabiltzaileak adin txikikoak badira, guraso edo arduradunaren baimen idatzia aurkeztu beharko dute.

## **20. artikulua**

Barne araudiko arauak hausten dituzten erabiltzaileak kanporatuak izan daitezke Haraneko musika entsegu geletako instalazioetatik, berehala eta zuhertasunezko neurri moduan, eta ez da baztertuko dagokien zigorra ezartzeko aukera.

## **21. artikulua**

Arau-hauste administratibotzat hartuko dira araudi honetako xedapenen kontra edo Usurbilgo Udalak dituen gainerako araudi eta jarraibideen aurka egiten diren ekintza eta ezegiteak. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

## **22. artikulua**

Arau-hauste arinak izango dira barne araudian jasotakoak ez betetzea, arau-hauste larritzat edo oso larritzat jotzen ez direnean.

## **23. artikulua**

Arau-hauste larriak izango dira:

- a) Hiru arau-hauste arin edo gehiago egitea.
- b) Espazioak edota bertako materiala asmo txarrez hondatzea edota arduragabekeria larriaz erabiltzea.
- c) Espazioak edota bertako materiala beste xede batekin erabiltzea, eta ez berez dutenarekin.
- d) Udal arduradunen aginduak ez betetzea.
- e) Jarrera setatsu eta ezkorra mantentzea, beste erabiltzaileen elkarbizitza oztopatzea edota zerbitzuen funtzionamenduan eragozteak.
- f) Espazioak erabiltzeagatik eskatu ahal diren prezioa publikoak ez ordaintzea.

## **24. artikulua**

Arau-hauste oso larriak dira:

- a) Bi arau-hauste larri jarraian egitea.
- b) Espazioetan lapurretak egitea.
- c) Ordutegiz kanpo instalazioetara sartzea, Kulturako zinegotziaren baimenik gabe.

## **25. artikulua**

Ezarriko den zigorra zehazteko, kontuan hartuko dira arau-hauslearen asmo gaiztoa, hutsegiteak sortutako kalte ekonomikoak, huts-egitearen eragin eta garrantzia publikoa, eta beste irizpide graduatzaile eta objektiboak.

## **26. artikulua**

Barne araudian tipifikatutako ekintzetan edo ez-egiteetan, dolo, erru edo axolagabekeriak jokatu duten pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira erantzuleak; hala ere, adin txikikoak direnean –

edota erantzukizuna ez egozteko arrazoiren bat dagoenean—, haien gurasoek, tutoreek edo zaintza legala duten pertsonak erantzungo dute.

## **27. artikulua**

Araudian jasotako arau-hausteez ondorengo eskalaren arabera zigorrak izango dituzte:

1. Arau-hauste arinak:

- a. Ohartarazpena
- b. 10etik 50 eurora bitarteko isunak.

2. Arau-hauste larriak:

- a. 51tik 1.500 eurora bitarteko isunak.
- b. Haraneko musika entsegu lokaletara sartzeko debekua, gehienez ere urtebeteko epean.

3. Arau-hauste oso larriak:

- a. 1.501etik 3.000 eurora bitarteko isunak.
- b. Haraneko musika entsegu lokaletara sartzeko debekua, 1-5 urteko epean.

## **28. artikulua**

1. Arau-hauste oso larriak hiru urtetara preskribatuko dira, larriak bi urtetara, eta arinak sei hilabetetara.

2. Arau-hauste oso larrien zigorrak hiru urtetara preskribatuko dira, larriak urtebetara, eta arinak sei hilabetetara.

## **29. artikulua**

Alkatetza izango da zigortzeko eta eragindako kalteak eta asmo txarrak baloratzeko organo eskuduna, Udaltzaingoa egindako balorazioari aintzat hartuta.

## **Aurreikusten diren taldeak**

### Momentuan daudenak

1. Zapparra
2. Ameba
3. Viafara
4. Mihise
5. POP
6. Xilikonai
7. Odolaren Mintzoa
8. Iñorkiñak

### Talde berriak

1. Getaris
2. Martina
3. Hysterya
4. Txiskeruak